

20 Urte elkarrekin lanean

Kontratisten Erregistro Ofiziala

pr@st

Aurkibidea

- Kontratisten Erregistro Ofizialaren 20. urteurrena
- Kontratisten Erregistro Ofizialaren Web presentzia berria
- Lizitazio elektronikoko berrien kopuru handi baten aurkezpena



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SALA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA



Editoriala

Kontratisten Erregistro Ofizialaren 20. urteurrena

1986tik Euskadiko Administrazioarekin kontratuak egiten edo egiteko moduan dauden enpresen datuak biltzen dituen zentro gisa egiten du lan.

Erregistroa bokazio bikoitzarekin sortu zen: Enpresei eta Administrazio Publikoari zerbitzuak ematea. Hartarako, bere datuak EAEko Herri Administrazioetako organo ezberdinen zerbitzura jartzen ditu, behar dituzten kontsultak egin eta informazio jaso dezaten.

Erregistroaren asmoa ere bada kontratuen izapideak arintzea, eta maiz eskaintza publikoetan parte hartzen duten enpresek dokumentuak behin eta berriz aurkeztu behar izatea saihestea, aurretik Erregistroan utzi badituzte.

Bereziki nabarmendu behar da azken 20 urteetan 3.200 enpresek baino gehiagok eman dutela izena Erregistroan, eta guztiak ondorengo abantailen onuradun izan dira:

- Arintasuna izapideak egiterakoan, dokumentuak ez dituztelako aurkeztu behar behin eta berriz.
- EAEko Herri Administrazioaren (Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Udalak)

eskaintzetara aurkeztu ahal izateko ziurtagiria lortzea.

Kontratisten Erregistro Ofizialak dituen ohiko funtzioez gain, gaur egun eginkizun garrantzitsua du Kontratazio Elektronikoa. Izan ere, erabiltzaile bat eskaintza elektronikora sartzen denean Erregistroko aplikazio informatikoa automatikoki kontsultatzen da, ondorengo egiaztatzeko:

- Enpresa Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dagoen, eta indarreko ziurtagiria duen.
- Enpresako ordezkarien legezko ahalordetzeak indarrean dauden.
- Kontratazio elektronikoko prozesuetan parte hartzen duten Enpresako pertsonak identifikatzeko.

Urteurrenarekin Erregistroaren eguneratze teknologikoa egin nahi dugu

Horregatik, berriz errepikatzen dut Erregistroan egindako inskripzioa egunean mantendu behar dela, eta zure enpresa Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistemara alta emanda egon behar dela.

Gure asmoa lana erraztea da, eta 20. urteurrena dela-eta Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzan Erregistroaren eguneratze teknologikoa egin nahi dugu. Hala, izena emateko eta berritzeko espedienteen bideratze telematikoa Internet bidez egin ahal izango dugu.

Hortaz, espero dugu 2007. urtean etorkizuneko Erregistro Telematikoa abian jartzea; izan ere, asko erraztuko ditu izena emateko eta berritzeko prozesuak. Urrats erabakigarria izango da enpresei kontratazio prozesua helarazteko, eta alor honetan Eusko Jaurlaritzak konpromiso sendoa hartu du.

Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga
Ondare eta Kontratazio Zuzendaria
Eusko Jaurlaritzak

Albisteak

Eusko Jaurlaritzak garapen berriak kontratatu ditu bere Kontratazio Publiko Elektronikoa Eredurako

Bitarteko elektronikoen bidez kontratazio administratiboa egiteko 18/2004/CE Europako Batasuneko zuzentaraua beteaz, Kontratazio Elektronikoa proiektuari Eusko Jaurlaritzak eman nahi dion jarrera proaktiboaren ondorioz, azaroa bitartean funtzionaltasun berriak sartu dira kontratazio elektronikoa sistemarako.

Garapen berrien artean, besteak beste, Kontratazio Elektronikoa sistema e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa egokitzea barne hartzen da, Administrazio eta Gobernu Elektronikoa Plan Estrategikoa barruan. Bereziki, garapen berriei esker, azken aurrerapenak txertatu ahal izango dira honako gai hauetan:

- Sinadura eta Egiaztapen Zerbitzua.
- Kontsulten bilgunea.
- Jakinarazpen sistema horizontala eta Jakinarazpenen Pasagunea.
- Erregistro Telematikoa.
- Ordainketa Telematikoen sistema horizontala.

Modu osagarrian, kontratatutako lanen artean, solik kontratazio elektronikorako diren honako metodo hauek txertatzen lagunduko duten aukeren analisisa erantzen da:

- Enkante elektronikoa.
- Eskurapenerako sistema dinamikoa.
- Elkarrizketa lehiakorra.

6 enpresak

egin dute eskaintza, batez beste, lehiaketa bakoitzean, azken bi urtean Eusko Jaurlaritzak deitutako lizitazio elektronikoetan.

Kopuru hori erkatu daiteke azken bi urtean Eusko Jaurlaritzak deitutako lizitazio tradizionalan (paperean) eskaintzak egin dituzten enprekin, 4,53 batez beste, lehiaketa bakoitzean.

Beraz, kontratazio elektronikoa ezarri denetik, gero eta enpresa gehiagok eskaini dituzte beren produktuak eta zerbitzuak, bereziki ETEek. Horrela, merkatu publikoaren irekiera maila altuagoa lortu da, Eusko Jaurlaritzaren helburu estrategiko bat, hain zuzen, Kontratazio Elektronikoa bultzatzeko orduan.

Pertsona


Ángel Cancelo
Zuzenbideko lizentziaduna



Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoko Ereduen Arduraduna. Abokatua prestakuntzaz, hainbat ardura izan ditu esku-hartze eta kontratazio arloetan, Eusko Jaurlaritzan nahiz Osakidetzan.

Kontratisten Erregistro Ofizialaren Web presentzia berria

Eusko Jaurlaritzak Kontratazio Publiko Elektronikoa hedatzeko egiten duen hedapen ahalegina argiago ikus dadin, Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialaren Web presentzia berri bat landu da.



Web berria Eusko Jaurlaritzaren Interneteko Presentzia Ereduan definitutako estandarren arabera garatu da, eta honako helbide hauetatik sar daiteke bertara:

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa/
www.euskadi.net/contratacion/

Helbidean sartzean ikusten den bezala, eskaintako informazioak Ereduen Kontratisten Erregistro Ofizialeko jardura eta erabilera arlo guztiak estaltzen ditu, eta honako atal hauek bereizten dira:

- Kontratisten Erregistro Ofizialari buruzko informazioa.
- Izena ematea Kontratisten Erregistro Ofizialean.
- Ziurtagiriak berritzea.

- Erregistroan izena emandako Enpresei buruzko Informazioa bilatzea.
- Kontratisten Erregistro Ofizialari buruz maiz egiten diren galderak (FAQ).
- Kontratisten Erregistro Ofizialaren eta Enpresen Saikapenaren funtzionamendu araudia.
- Erregistroan izena emateko eta berritzeko Inprimakiak jaistea.

Aldian behin, merezi du Erregistroaz arduratzen diren langileek maiz jasotzen dituzten galderai erantzuteko erabiltzen dituzten ataletan sartzea. Atal horietan, Erregistroak iraun duen 20 urteetan erabiltzaileek Erregistroko teknikariei egin dizkieten galderai buruzko azalpenak eta xehetasunak aurkeztu dira.

Kontratazio Elektronikoaren Ereduaren Aurkezpena Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Enpresei

SPRIren "Enpresa Digitala" Programaren arduradunekin lankidetzan, iraila eta urria bitartean Kontratazio Elektronikoaren Ereduaren aurkezpenak egin dira Miñao,

Zamudio eta Miramongo Teknologia Elkartegietan, Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emandako Enpresei zuzenduak.

Oro har, hiru ekitaldien artean, 400 bat enpresek jarraitu zuten aurkezpena, beraz, Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emandako enpresen 1/5 bat kontrataziorako bide digitalak erabiltzeko prestatzea eta antolatzea lortu zen, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoaren Eredua zuzenetik ezagutzeko aukera izan zezaten. Ekitaldietan egiazko lizitazioak egin ziren, erabileraren erraztasuna eta lizitazio

Lizitazio elektronikoko berrien kopuru handi baten aurkezpena

2006. urteko amaierarako, kontratazio prozesuetan diharduten Eusko Jaurlaritzako 100 bat teknikarik Kontratazio Elektronikoan ziurtatutako prestakuntza izango dute.

Modu osagarrian, Enpresen sentiberatzea eta informazio kanpainak eman dituzten urrats handiak kontuan hartuz, Eusko Jaurlaritzak,

Eguberria baino lehen, espediente kopuru handi bat aurkezteko asmoa du, eta haietarako kontratazio elektronikoa antolatuko da.

Hala, Kontratazio Elektronikoaren Idazkaritza Teknikoarekin lankidetzan, hainbat Sailek honako espediente hauek aurkeztuko dituzte:

- **Lehendakariordetza:** Publizitate kanpaina.
- **Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila:** Kalitate Zuzendaritzarako Bulegoaren Artxibategiko Antolamendurako Aholkularitza Teknikoa.
- **Emakunde:** garbiketa zerbitzuak.
- **Osalan:** garbiketa zerbitzuak.
- **Nekazaritza:** bidaia antolatzeko zerbitzuak.
- **Barne Saila:**
 - Bidaien antolakuntza.
 - Ertzaintzaren Akademiarako Soroslea.
 - Ertzaintzaren Akademiako fotokopiagailuen mantentzea.
- **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila:** Itzulpen Zerbitzuak.



Ikus daitekeen bezala, Kontratazio Elektronikoaren ezarpen prozesua gero eta gehiago bizkortzen da eta gero eta kontratazio organo gehiago barne hartzen ditu.

Enpresek eskainitako zerbitzu motaren arabera, kontratazioa egiteko bitarteko elektronikoen erabilera aukerak berehalakoak izango dira, gehiago edo gutxiago. Presta zaitetz!

elektronikoaren sistemaren erabilgarritasuna erraz hautemateko moduan.

Azpimarragarria da Zamudion egin zen aurkezpenean ekitaldira joateko eskariek gaintu egin zutela Teknologia Elkartegiko ekitaldi aretoaren edukiera. Horregatik, beharrezkoa iritzi zaio azaroa amaieran bertan beste aurkezpen bat egiteari, Euskadiko osoko Enpresei zuzendutako aurkezpena, hain zuzen.



012 telefonoaren edo posta elektronikoen bidez, enpresek 42 lagunez osatutako talde bat aurkituko dute laguntza eskaintzeko zain.

Kontratazio Publiko Elektronikoa aurrekusi diren mekanismo digital gehienak berriak dira. Hori dela-eta, horiek abian jartzeko, Eusko Jaurlaritzak ahalegin berezia egin behar du gaur egun Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden 3.200etik gora enpresei laguntzeko eta behar duten arreta emateko.

Horretarako Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistemaren Erabiltzaileentzako Arreta Gunea sortu da. **Pablo Buendia** Zentroan diharduten teknikarietako bat da.

Berarekin hitz egin dugu bere lanaren berri izateko.

Zein da zure eginkizuna?

Elkarrizketa

Enpresa eskaintzaileen zerbitzura gaude

Eusko Jaurlaritzak Kontratazio Publiko Elektronikoko Sistemaren Erabiltzaileentzako Arreta Gunea sortu du, era elektronikoa eskaintzak egin nahi dituen orori laguntzeko eta behar duten arreta emateko. Ni haren kide naiz, enpresa eskaintzaileei arreta emateko prestatu diren beste 42 pertsonekin batera.

Gure eginkizun nagusia Zentroan, Kontratazio Elektronikoa erabili nahi duten enpresa bakoitzeko pertsonekin harreman zuzena izatea da.

Orobat, era elektronikoa eskaintza egiteko beharrezkoak diren baldintza teknikoei eta administratiboei dagokienez aholkularitza ere ematen dugu.

Era berean, aplikazioak erabiltzeko eta gerta litezkeen gorabeherak konpontzeko laguntza ere eskaintzen dugu. Nik, bereziki, arreta mota hori emateko espezializazioa daukat.

Zer-nolako laguntza ematen duzue lizitazio elektronikoen aplikazioak erabili ahal izateko?

Internet bidez egiten dugun prozesua da. Telefonoz, berriz, erabiltzailearekin hitz egiten dugu. Erabiltzaileak gure laguntza proposamena onartzen badu, bera eta ni Interneteko helbide batzuetara konektatzen gara eta aldi berean ikusten uzten digute une

oro Enpresaren pantailan agertzen ari dena.

Horrela, enpresaren erabiltzailea eta ni lizitazio elektronikoa berezkoak zaizkion eragiketak egiten joaten gara eta denak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzen dugu.

Zer gomendio emango zenieke enpresei?

Uste dut funtsezkoa dela enpresek www.contratacion.info helbidearen bidez ematen diren jarraibideak kontuan hartzea prestakizun tekniko eta administratiboak egiteko. Ondoren, guztiz gomendagarria da Kontratazio Elektronikoa prestatutzatza ikastaroetara etor daitezten.

Nola eska dezakete enpresek zure laguntza?

Zuzenean, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzua, telefonoz nahiz posta elektronikoz kontsultak egiteko sarbidea da. Telefono zenbakia 012 da. Telefono horren bidez, enpresek 42 lagunez osatutako talde bat aurkituko dute laguntza eskaintzeko zain.

Gainera Laguntza Zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezke posta elektronikoz laguntzakpe@ej-gv.es helbidearen bidez.

Zeinahi dela aukeratutako bidea, enpresa eskaintzailearen zerbitzura egongo gara.

Zenbakiak

- 8** Kontratazio espediente. Era elektronikoa egin da eskaintza.
- 20** Kontratazio Elektronikoko espedienteen aurreikuspena, 2006. urteko azken hiruhilekoan.
- 3** Eusko Jaurlaritzako Arlok prozedura elektronikoa erabili dituzte kontratatzeko: Kontratazio Batzorde Nagusiak, Baliabide Orokorren Zuzendaritzak eta Herri-Administrazioaren Euskal Erakundeak (HAEE-IVAP).
- 500** Enpresa bertaratu dira informazio-saioretara.
- 246** Pertsonak parte hartu dute prestakuntza ikastaroetan.
- 138** Enpresa prestatu dira.
- 55** Kontratazio teknikari prestatu dira.

Lizitazio elektronikoa bidez kontratatutako diren ondasun eta zerbitzu motak:

- Aholkularitza zerbitzuak.
- Aseguruak.
- Bulegoko altzariak.
- Segurtasun sistemak.
- Kontu ikuskaritzak.
- Testuen itzulpen zerbitzuak Euskaraz eta Gaztelaniaz.

Formazioa

Kontratazio Elektronikoa buruzko Prestakuntza Ikastaroak Kzguneetan

Deustuko zentroak Bilbon eta Ernest Lluch zentroak Donostian enpresei zuzendutako ikastaroak eskaintzen dituzte.



Enpresek prestakuntza ikastaroak hartzeko ahalik eta erraztasun handienak izan ditzaten, hitzarmen bat egin da Kzguneetako sarean arduradunekin ikastaroak emateko Bilboko (KZgunea Deustua) eta Donostiako zentroetan (KZgunea Ernest Lluch).

Aurtengo ekainetik aurrera, ikastaroak eman dira aipatutako Kzgune zentroetan eta, horrela, prestakuntza ikastaroetarako joateko aukerak zabaldu dira hiru euskal hiriburueta. Ikastaroen bidez, honako hau lortuko dute parte-hartzaileak:

- Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publikoko Sistemaren ikuspegi orokorra izatea.
- Eskaintza elektronikoa egin ahal izateko aurretiko zer baldintza tekniko eta administratibo bete behar diren jakitea; kasu bakoitzari dagokion jardunbidea zein den ere ikusiko dute.

- Eskaintza elektronikoa arrakastaz egiteko kontuan hartu beharreko alderdi legal, tekniko edo praktikoa nagusiak zein diren jakitea.
- Dokumentazio digitala prestatzeko jardunbideak ezagutzea.
- Kontratazio Elektronikoko eskariak izapidetzeko prozeduraren ikuspegi orokorra izatea.
- Lizitazio Elektronikoa egiteko aplikazioa behar bezala erabiltzen ikatea.

Ikastaroek gutxi gorabehera 3 orduko iraupena dute eta datak, tokiak eta izena emateko prozedurak www.contratacion.info web gunean iragartzen dira "Formazioa" sailean, non Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoaaren Ereduari buruzko informazio osoa eskaintzen den.

Objektua

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu informatikoen babeserako bunkerra

Eusko Jaurlaritzaren sistema informatiko guztiak, kontratazio elektronikoa aplikazioak barne, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen (EJIE) bunkerrean gordetuta daude.

EJIEk, Eusko Jaurlaritzaren enpresa publikoak, segurtasun fisikoko eta informatikoko muturreko baliabideak ditu, gaur egun dauden bitarteko seguruarekin batera enpresa eskaintzaileek egiten dituzten eragiketarako babesteko.

